

I. Eranskina. Unitate fraseologikoak bilatzeko Iturriak.

A).- Resurrección María Azkue. *Euskalerrriaren Yakintza III* alean euskaraz *Esakerak* eta gazteleraz *Modismos* deitzen den atalean, 233-351. orrialdeetan, ehun orrialde baino gehiago eskaintzen dira. Fraseologismoei Azkuek modismo deitzen zien. Lokuzio-bilduma da, gehienak zuzen-zuzenean hiztunengandik jasota. “Guzitara 311 esakera lankide ezagunenak. Beste guziak, 1.700 bat, erriarenganik ikasiak ditut” (Azkue, 1945, 234 or.)¹.

B).- Gotzon Garateren bi lan:

a) *Atsotitzak bilduma* (Garate, 2003). 30 000 esaera zahar inguru, Euskal Herri osokoak. Gehienak landa-lanean bilduak; batzuk beste bildumetatik hartuak, edo laguntzaileengandik. Eleaniztuna da: euskara (14.458), gaztelania (5.208), ingelesa (4.045) eta latina (3.462). Altxor handia da esaera zaharrak (paremiak) bilatzeko eta beste hizkuntza batzuetako ordainak aurkitzeko. Kontsulta lau hizkuntza horietako edozeinetik hasita egin daiteke sarean. Bilaketa hitzetan oinarrituta egin behar da, hau da “haserre” kontzeptuarekin lotutako zerbait bilatzeko, “haserre” sarrera aukeratu beharko da eta “haserre” hitza daramaten paremiak baino ez ditugu aurkituko. Gazteleratik sartzen bagara eta “enfad(o)(ar)” bilatzea erabakitzen badugu, bilaketaren emaitzan bakarrik agertuko da zehatz eta mehatz sartu duguna: “enfado”, baina bilaketa zabaldu nahian “enfad” bilatuz gero, ez da emaitzarik agertuko. Euskaraz, berriz, “agur” sarrerarekin ez da ezer agertzen, baina “agurtu” sarrerarekin hamazazpi emaitza (Aberatsari *agur*, erromesari (behartsu) zakur. 87) Alde horretatik, kontzeptuak-eta bilatu nahiz gero, zailtasunak ditu. <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>

b) *Erderakadak*. Euskaraz ongi mintzatzeko *Hiztegia*. *Zazpi Probintzietako Adibideak* (Garate, 1984). Euskaraz erabiltzen diren kalkoen bilduma oso zabala da, hizkuntzaren zuzentasuna zaintzera bideratua, zerrenda honetako C) iturrian (*Kalkoen Behatokia*), gertatzen denaren antzera. GRAL honetarako gutxi erabili dut.

C).- *Kalkoen behatokia*. EITBk eta Euskal Herriko Unibertsitateak sortu duten aplikazio informatikoa. hiru modutara erabili liteke: 1.- Kalko-motaren sailkapena baliatuz:. 2.- Zerrenda edo aurkibidean bilatuta. 3.- Bilaketa-sistema erabilita. Gotzon Garateren *Erderakadak* lanean gertatzen denez, beste hau ere hizkuntzaren zuzentasunera begira

¹ Nire GRAL honetarako interesgarria izan daiteke Azkuek “modismoak” batzuetan itzulita ematen zituela, hau da, ez zuela erderazko ordaina ematen (adibidez: *bereak eta bi* (oirá) las suyas y dos). Esakerak gaztelerako sarreratik hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude. Batzuetan zail gertatzen da gauzak bilatzea.

dagoen lana da, eta zuzentasuna beti kontuan hartu beharrekoa den arren, eta zerrenda honetan egotea merezi duen arren, ariketak egiteko ez digu ekarri handirik egin.

<http://www.ehu.es/ehg/kalkoak/>

D).- Koldo Izagirrearen *Euskal Lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*. Hordago 1981. Auspoa argitaletzeko liburuak hartzen ditu bere lanaren corpus nagusi moduan, bertsolarien jarduna aho-hizkeratik hurbilena dalakoan. 7.000 lokuzio inguru jasotzen ditu. Bilaketak euskaraz, gazteleraz eta frantsesez egin daitezke hiztegi eran, hau da hitz bat bilatzen da eta hitz hori daramaten lokuzioak agertzen dira. Lan horretan, atsotitzak, esaerak eta lokuzioak kontzeptu-familiaka (ahalegina, ankerkeria, asperdura, azpikeria, beldurra, damua, etsipena, ezustea, harridura, kexa urduritasuna... 170 kontzeptu baino gehiago) bilduta ere ematen dira. Ariketen atalean ikusiko denez, estrategia moduan oso baliagarria gertatu da kontzeptuka egindako sailkapen hori.

Lan honetan oinarrituta, Intza proiektua abiatu zen, Euskal Lokuzioak Sarean webgunean. Sarean hemen aurki dezakegu: “<http://intza.armiarma.com/>

E).- Justo Maria Mokoroaren *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades* bilduma (Mokoroa, 1990). Ez dira fraseologismo hutsak. Ia ehun mila esaldi edo adibide. Informazio-iturri zabala erabili da: idazleak, egunkariak eta solasaldiak; guztira, 385 iturburu bibliografiko eta 1.300 bat lekuko. Lokuzioak ez ezik, kolokazioak eta enuntziatu fraseologikoak ere biltzen ditu. Fraseologismoen artean lokuzioak dira gehienak, baina atsotitzak ere asko dira. “constituyen valiosos elementos estilísticos para dotar al lenguaje usado de especial viveza y colorido, gracia o energía.” Zioen Mokoroak. (Ez ote da horixe, bada, lan honen helburua?) Online kontsulta daiteke: <http://www.hiru.com/hirupedia>

<https://www.hiru.eus/es/justo-mokoroa?action=entrarMokoroa>

F).- Gaur egun tresna oso erabilgarria dago guztien eskura: *Labayru Hiztegi Fraselogikoa*. Erdarazko eta euskarazko 3.500 lokuzio baino gehiago sarean. Kontsultarako asko erabili dut. Eman dezagun gazteleraz barra-barra erabiltzen dugun esamolderen bat bilatu nahi dugula (bide batez, esan “barra-barra” ere bertan konprobatu dela ea ondo idatzita dagoen eta nola erabiltzen den), esaterako “poner a parir”. Erdarakoaren sinonimo moduan jartzen ditu: poner a caldo, poner tibio, poner verde; euskarazko hainbat ordain. Informazio asko eta zehatza eskaintzen du, erabilera-adibideak jartzen ditu eta idazkera zuzena zein den ere ematen du. Horrezaz gainera zehaztuta agertzen dira unitate fraseologikoak zein eratakoak diren (aditz lokuzioak,

adberbio lokuzioak, kolokazioak...). Horrek ziurtasuna ematen du dena delako aldakia aukeratzerakoan.

<https://hiztegia.labayru.eus/ED?locale=eu>

G).- Pablo Zamarriparen *Manual del Vascófilo* liburuan argitaratutako euskal lokuzioen bilduma. UFen bilaketan aurkitu dugun harribitxietako bat izan da, ematen dituen UFen adibide askotan aurkitu delako GRAL honetan bilatzen zen “bizitasun” hori. Zenbait atal ditu. Batzuk aipatzekotan: Modismos vizcaínos traducidos al castellano (hurrenkera alfabetikoan emaniko lokuzio zerrenda oso baliagarria, bizitasun handiko “bitxiekin”); Modismos de vocablo repetido (bizitasun handiko adibideekin hori ere, adierazkortasuna lantzeko berebizikoak); Elipsis en vascuence; Onomatopeyas vizcaínas (berak bakarrik ariketa asko egiteko esku ematen du); Corrigiendo malas traducciones (Garateren edo Kalkoen Behatokiaren helburu berekoa); edo Modismos castellanos traducidos al vizcaíno (ariketagintzarako oso baliagarria ere). Sarean, liburuaren orrialdeen “argazkiak” dagoz (ezin daiteke testu bilatzailerik erabili).

<http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24354>

H).- AEK, Aizu, 205-228 zk., 1998/01-1999/01 *Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz*. Gaztelerazko ohiko esamoldeak abede hurrenkeran jarrita ditu eta horien euskarazko ordainak ematen ditu. Lan honetarako ariketak prestatzeko baliagarri gertatu da. [Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz](#).

I).- Centro Virtual Cervantes, *Refranero multilingüe*. Material bilaketan aurkitu den beste harribitxi bat. Gaztelerazko paremiak hainbat hizkuntzatan bilatu daitezke, euskaraz ere, “contiene una selección de paremias españolas populares, principalmente refranes y frases proverbiales, con su correspondencia en varias lenguas” dio web-gunearen hasieran, eta halaxe da, euskarazko ordainak ematen ditu, zein iturritatik hartu diren zehaztut. Euskarazko paremien bilaketak ere egin daitezke.

<https://cvc.cervantes.es/lengua/refranero/>

J).- Xabier Altzibarren *Hizketa Formula Ohikoak* artikulutik aukeratutako zenbait formula. www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/download/9632/8870

K).- [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#). Euskararen inguruko baliabide ugari (programak, tresnak, bilatzaileak, hiztegiak, corpusak, testu eredugarriak, zalantzak argitzeko baliabideak, etab.) biltzen dituen webgune interesgarria da eta *Esaerak, lokuzioak* atala dauka, non Gotzon Garateren Atsotitzak, Mocoeroaren Ortik eta emendik, Intza proiektua, Mantxut eta Beste batzuk dauden. “Mantxut”-en (<https://sites.google.com/site/ehoibi/lokuzioak-eta/mantxut>) atala deigarria da, “euskal

erranairuak, hitzak eta bestelakoak beste modu batean adierazteko eskubidea aldarrikatzeko”. Lokuzio eta esaera “klasikoez” gain, “erranariu” (esamolde) berriak “asmatzea” proposatzen dute, eurak dioten bezala: “lotsagabe-lotsagabe, alegia”. Interesgarri begitandu zaigu adibideak emateko modua: esaera bat planteatzen da eta marrazki batez laguntzen da, esaeraren esanahia azaltzeko. Jartzen dituen esaerak eta adibideak, printzipioz, ez daude Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta, helduagoei baino, baina ideia moduan interesgarria dirudi.

<https://sites.google.com/site/ehoibi/lokuzioak-eta>

II. Eranskina. Altzibarren ohiko hizketa formulen laginketa

XABIER ALTZIBAR

Formula ohikoei buruzko artikulua iruzkina eta komikiaren gidoa osatzeko erabiliko hizketa-formulen laginketa

Hezitzaile, hizkuntzaren erabiltzaile kualifikatu, sortzaile nahiz itzultzaile, hedabideeta abar behar gorrian dira atsotitz, lokuzio eta molde eginak ezagutu eta erabiltzeko,

Hizkuntzak premiazko ditu horiek, hitzak urri dituelako pentsamenduaren ñabardurak adierazteko, eta adierazkortasun kontuengatik -bizitasuna eta indarra ematen diotelako-, hizkuntza bakoitzaren norberetasuna adierazteaz gainera (Villasante 1988: 193).

Unitate fraseologikoak Ondoko ezaugarriak dituzte: maiztasuna, instituzionalizazio edo emankortasuna, egonkortasun edo finkotasuna, esanahi berezitasuna gazt. *idiomaticidad*), aldakortasuna, gradazioa (Corpas 1997: 19-32). G.

Corpas-en eskuliburuan hiru esparru bereizten dira garbi: **kolokazioak**, hitz bi elkarrekin josiak joan ohi direnak (*Kontu hartu, miseria gorria, estu totu*); **lokuzioak**, esakerak edo erramoldeak izeneko hitz andana edo egitura finkoak, esanahiaren eta gramatika funtzioaren aldetik batasuna dutenak (*Ardi galdu, urrutiko intxaurrak, kukurruku jo, argi ta garbi*); eta azkenik, kolokazioak eta lokuzioak ez bezala, **enunziatu osoak** direnak: paremiak edo atsotitzak eta ohiturazko hizketa-esamolde edo formulak.

Paremiak eta formulak elkarrengandik bereizten dira dira: alde batetik, haiek esanahi erreferentziala dutelako; hauek, aldiz, esanahi sozial, adierazkor edo diskurtsiboa.

Zer ditugu hizketa formula ohikoak? enunziatu osoak; Formulek eginkizun pragmatiko jakina dute gizakien arteko mintzabidezko harremanetan.

Usuenik berriak kontatzeko baino gehiago mintzabidezko harremana ez galtzeko dira: *-Zer moduz? - Ondo esan beharko*. Hau da, ohi(turaz)koak edo rutinarioak dira anitz.

Gizarteko emozio egoerak eta erreakzioak arautzen baitituzte hiztunen komunitateak onartutako norman oinarritua

Gehienak hizketakoak eta elkarrizketakoak dira, nahiz hizkuntza idatziaren esparrukoak ere badiren.

1) Gizabidezkoak edo kortesiazkoak

(adib. agurtzekoak, desenkusatzekoak, eskerrak ematekoak); hauek ez daude hiztunen emozio-egoeren mendean eta beraz derrigorrezkoenak dira, gizarte-protokoloari dagozkio-eta.

2) Hizketaldia egituratzen dutenak, mintzaldiaren antolatzaileak.

3) Adierazkorak, hiztunaren sentimentu eta gogoaren egoera agertu nahi dutenak (batzuk jarrera erretorikodunak, jestu, ahoskera indarrezko, erritmo bizi eta abarrekin).

hitz bakarrekoak (adib. *Ta?*). (euskalkien marka, itxura eta usaina; hortaz ez dira hizkuntza estandartuetan bezain zabalduak hiztunen eremu geografikoan.)

Formulabuztanak. *-Zer barri? -Zaharrak barrio Guztiak hamorragarri*

Formulak interjekzio eta hasiera-makuluetatik hurbil daude

Semantika edo esanahiaren aldetik, izoztuak dira anitz

Estilo mailei dagokienez, gehienak estilo neutro eta apalekoak dira, lagunartekoak edo familia artekoak.

Konnotazio adierazkordunak oso ugari dira, jarrera-erakusleak baitira formula anitz, hiztunak bere sentimendu eta emozioak adieraztekoak, era konbentzionalen.
Komenigarria da, hortaz, formulak ere bil ditzagun, lokuzioetatik bereiz. Euskalki guztietakoak, eta batez ere egun euskara mintzatuan zabal erabiliak eta erabiltzen diren bezala.

Hizketa-formulen laginketa. (komikiaren gidoa osatzeko erabiltako batzuk)

1. Hizketaldikoak (f. *discursivas*);
2. Psiko-sozialak: horien artean, alde batetik, adierazkor edo jarrera erakusleak (Corpas-ek f. *psico-ostensivas* deituak) eta, bestetik, gizarte-formulak edo kortesiazkoak);

1.- Hizketaldia gidatzeko formulak. Badira elkarrizketa hastekoak eta bukatzekoak, alde batetik, eta egituratzekoak, bestetik.

1.1 hasteko eta bukatzekoak

Ola!, Aspaldiko!

Salerosketa

Zer modu(z)? Zer berri (da)?

Zer nahi ... ?

-Zu, ia txikitotxu bat,

Hizketari ekitean -agurren ondoren-

Zer duzu? (I dukl-n),

Zer dabik

(Zer dakazu?

egonean?);

Nundik nora habil? Ze bizimodu darabik?,

Bizi zara (haiz I ...)?

Zer di(n)ostazu (/ di(n)ostak)

Hara (hemen)!, Hona (hemenf), Horra (hor)!

Elkarrizketa ez etetekoak

eta kito (hizketa bukatzeko, zerbait desatseginaadieraziz).

1.2 elkarrizketa gidatzeko edo egituratzekoak

Horretara noa (bada)

Hor dago (kontua!) ba(da)!,'

Ha(ra) hor ba!

Ez dakit (bada) zer esan

Ta? (hartzaileari, kontatzen edo jardunean jarrai dezan)

Eta gero? (- Hotz ez dena bero; sopas en kaldero)

GAMBITS

1) Informazioa sarrarazten dutenak:

Jakin ezazu (/ jakizu); (Eta) dakizula (Ipar.)

Esango nuke ...

2) Solaskideen arteko harremanak erakusten dituztenak:

Eta kito. «Tratu bat bukatzean esaten da: *Kitto! Bat hil eta bestea itto*»

eta listo!

Akabo!

Tira! ... (Tirok!)

Zer dinostazu?

Itxi(egi)dazu bakean! / bake santuan

Zer da (gero) berau?

3) Informazioaren aurrean solaskideen jarrera eta sentimenduen adierazpena erakusten dutenak, formula psiko-sozialetan bezala:

Kontuak atera / Atera kontuak; Kontizu!

Argi (ibili)!

Jakin dezazun (/ daizun)

Tira! edo Bueno, bueno! (hizketalagunak esandakoari garrantzia kentzeko

4) Elkarren arteko komunikazioa kontrolatzen dutenak
Konforme? Akort?; Ados?; Bagara?

2. Formula psiko-sozialak

Gizarte-interakzioa erraztea, edo igorlearen buru-egoeraren eta sentimenduen adierazle izatea da hauen funtzioa.

2.1. Formula adierazkorrak

2.1.1. Igorlea inplikatzeko gertaera batean:

Barkatu (egik / zaidak)

2.1.2. Igorlea inplikatzeko gertaera batean: «bat etorri»,
«ontzat eman»).

Bai horixe!; Horixe bail

Ez ba (ze)

Ez behar be!

Hori, hori!

Hoba ez! (b, «No faltaba mas»),

Neuri esango didazu

Ez dago zetan esan, Hori zetan esan be(re) ez;/ Ez dago esan beharrik

.- Ezeste (ukatze) formulak

Bai zera!

Baita zera be(re)!

Esatea be!

Horixe behar dugu (joagu/

Bajagok hobarik!

Zer X eta zer X ondo (/ X oste (ango)! / p-X / otxo kuarto!

Ondo zauz!

Nahiago neuke atzie erre!

.- Sinesterik ez ematen edo esana gaitzesten dutenak:

Kendu hadi ortik! Zagoz ixilik! Kendu hadi ortik!

.- Erantzuna ez dakiela:

.- Eskerrak emateko formulak

.- Zori ona opa

.- Jan-edanetakoak

On egin dagizula janak eta txarrik ez edanak

.- Gaizki opa

Itoko al haz

.- Atxikimendu-formulak.

Zer egingo diogu ba!

.- Dolumina

datorrena hartu bier

.- Ulertze eza, mespretxua, ezaxola

Eta zer?; (Eta) zuri zer

Hor konpon! (Mari Anton

2.2. Igorlea inplikatzeko gertaera batean

.- Hitz ematekoak dira:

Zin dagit

.- Mehatxatzeak:

Itxi geldi ...

Hago (hago)!

.- Ohartarazteak

Kontuz (gero)!; Erne (ibili)!; Argi (ibili)!

.- Erronka

Hi bahiz, ni ere ba

2.3. Hartzailea inplikatzeko gertaera batean

- Hartzaileari alde eragiteko

Alde (hemendik)!

Ixo!, xo!,

Kopla gitxi!

- Lasaitzekoak:

Tira, tira! (+ X), tirok (ba)

Egan ardura barik! (

- Gogo berotzekoak

Hori, hori!; Hori dok-eta/;

Emon!

Eutsi goiari eta Gora bihotzak

2.4. Baieztatzen edo egiaztatzen dutenak

Egia esan (/esateko) ... ; Eztago zertan esan

Erran gabe doa

- Zin eta hitz emate formulak

Jaungoikorako;

alafede!; Ala Jainkoa!

- Ustekabea adieraztekoak

Gezurra dirudi ...

Hara bestea!;

Harrapazak

Nik

pentsauko neban ba!

Hau da (I dok) mark(e)a!

Hau dok hau izatekoa!

Sekula holakorik!, Halakorik!,

Ez da egia izango!

- Ustekabea eta ez sinestearen

Bai zera!

zer dauko ba! zer deutso ba!

zerak sinetsiko du hori

- Nahigabea, atsekabea edo haserre adieraztekoak:

Horixe baino ez genuen behar; Ederra egin diagu!

Ai, ene ba(da);

Hau da biharlekua!

- Igorlea lasaitzen dela adierazten dutenak:

Eskerrak (I-la)!; Gaitz erdi

- Jainkoaren izena ahotan

Jaungoiko maitea!; Jainkoa lagun!; Jainkoarren!

- Deabruaren izena

De(a)bruak deramala ... !

- Emozio formula askok arruntkeriazkoak

Kakazarra!

Mekaguen (la leche / sos / ..); Joan zaitez popatik hartzen

Madarikatua!,

2.5. Gizalegezkoak, agurtzekoak eta adio esatekoak.

Nola zaude (/ Zelan zagoz / hain ondo be (b-m) edo Hainbestean

Zoaz ondo!

Ondo izan; Ongi ibili!,

III. Eranskina. Zamarriparen lokuzioen laginketa

PABLO ZAMARRIPA (Manual del vascófilo)

UF LOKUZINOAK (Komikian erabiltzeko aukeratutako batzuk. “Modismos vizcainos traducidos al castellano” sailetik)

Txatxar
Halango baten
Halan-holan
Ahal dala, ahaleginez
Ederra daroa aldean
Alper da, alperik /enbalde—de balde doarik, doan
Handi-handika
Ez dago handi-txikarrear gizontasuna
Alde hortik
Handikorik hortikora (de la Ceca a la Meca)
Apur baten itxaron /~~apur bat~~
Aratinik jausi, buruz behera, buruz gora buruz behea
Artaburuak urkultzera (a freir espárragos)
Astegun buru-zurian
Astinaldia emon
Hainbestean (con si con sa) / Zelanbestean (magníficamente)
Hatan horretan (entre pitos y flautas)
Atze-atzeka
Atzera egon, aurrera egon
Atzekoz aurrera, azpikoz ganera,
Bai ondo be, bai hortan
Baita ta
Baita zera be (y un huevo de pato)
Bai zeretik
Hoba ez
Bala bala ibili
Baneritxon (me lo figuraba / lo suponía) /suposatzen nuen
Bardinean. nik bardinean hori gurago.
Bazterrak engainetan
Bazterrak nahasten (folloitan)
Batek daki
Batetik bestera igaro eben (atreevesar con la espada)
Batez ere
Batez beste
Behar den legez
Begien egarri (para ser visto)
Begien itxi-ireki baten
Behin behinean
Behin edo behin
Behinik behin
Belarriak bero izan
Benetan zagoz?
Berak beratara egin / berak laguntza barik)
Berandu baten
Beranduen dala
Berba (e)ta berba
Berebiziko, apropozko

Besagan, besape, besazehar (cortándola)
 Bestelango zera! (¡Vaya una cosa!)
 Besterik da (es muy distinto) /oso ezberdina da
 Bete betean sinistu
 Bide onetik jakin (saber de buena tinta)
 Burua atara, garbitu, joan
 Buruari itxi
 Buruko, bakotxak
 Ederrak emon deuskuz (nos la ha pegado)
 Egi-egia da
 Egin dau egitekoren bat (menuda ha hecho)
 Egotez, ondo gagoz
 Eguzki-begitan
 Ekinalean
 Esatea be
 Ez ba ze!
 Ez eze
 Ez-ikusi egin
 Ez-entzun egin
 Ez-jakin egin
 Ezin bestean beserik ezean
 Gabeko orduetan
 Gazte-zaharrean /pobre-aberatsean / lodi-argalean (no/depende de...)
 .- Gero (zein, zenbat, zelan, non ...gero? (Pero cuál) / Egia da hori gero? (indarra emateko)
 Etorri da? Arin gero! /// Arin. Gero! Cuidado. Gero!...
 Ia/Ea barriro!
 Inondik inora
 Itsu-itsuan
 Itsumustuan
 Izatekotan be
 Jo ta su ibili
 Kukuka ibili (al acecho)
 Lantzean behin
 Lekutan/lekutara
 Lehengo baten
 Logureak erre(ta)
 Moskor baten dabil
 Nondik nora? (¡que va!)
 Nora ezean
 Hobeto beharrean / on gurean/ ondo beharrez
 Odol hotzean --- KL
 Oker egon ---KL
 Ondo hartu ---KL
 Onenetik be (holangoa, onenetik be, txarra izaten da) / txarrenetik be
 Hor dago untzea
 Odolkiak ordainetan (donde las dan las toman)
 Hori, hori! Bravo
 Hor-hor (poco más o menos, aproximadamente)
 Oso osoan ukatu (en redondo)
 Ozta-ozta
 Pitean-pitean / txitean pitean)
 Saman hezurra dela
 Tarratadan ebagi
 Txakur eta katu egon
 Zati baten / zati baterako

Zeharka-mearka (zigzag)
Zer gura ta ha
Zer jazoko be (por si las moscas)
Zertarako esan behar ze (según para qué)
Zir edo zart

IV. Eranskina. Komikiaren testua.

1. Komikiaren testua

1 (Sarrera. Tartalok eta Basajaunek elkarrekin topo)			
AUKRATUTAKOAK	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
BASAJAUNA 1.- Aspaldiko. Hara hemen! 2.- Gure Tartalo bildugarria begi ilunik	1.- Hizketaldia hasteko formulak /agurren ondorengo formulak 2.- Tristezia/etsipena adierazteko moduak (begiari buruzko aipamena eta jokia hasiz)	1.- Altz 2.- Intz	1.- Kaixo, aspaldiko/zer moduz?/zer duzu?/Bizi haiz?/zer dabik/hona hemen! 2.- begi ilunik /beltzik eta ilunik /bihotz eroriarekin /bihotz hilarekin /begia ilunik egon /begitarte erori /beltzean ezarri /(inon) beti aste santuak izan /betilundu /bihotza ilundu /gogoa ilundu /kopeta lainotu /muxatan egon
3.- TARTALO.- Kontuz gero! 4.- Utzi bakean begia. 5.- Adar joka ala?	3.- Mehatxuka /ohartarazteko formulak 4.- Mehatxuka /ohartarazteko formulak 5.- Galdera, mehatxu kutsuz	3.- Altz, Aizu 4.- Laby 5.- Laby	3.- Txo txo.../erne ibili/ argi ibili/ Kontuz (gero)/ 4.- Kontu hobea daukazu begia bakean utzita (te conviene no...)/hobe duzu.../ 5.- Ixo!
BASAJAUNA 6.- Tira! 7.- Begitik sua dariola ez paratu!	6.- Lasaitu nahian 7.- Ez haserretzeko eskatzea. (begiari buruzko aipamena sartuz)	6.- Zam, Laby 7.- Intz, Laby	6.- artetu, baketu, trankildu, baretu, sosegau/sosegatu, emetu (bizk)/ematu (bat) zaitez. 7.- Ez parau/ez jarri odolak irakiten/suak eta garrak hartuta /zerbait esateko baino erreago /begietatik sua erion/begietatik suak urten /bekozko jarri /bekokia ilundu .../
TARTALO 8.- Para(t)uko ez naiz, ba! 9.- Ez zaizkit ba lau zaparro eskapatu Jetilzubin.	8.- Jarrera berrestea 9.- Ustekabea adieraztea	8.- Altz, Zam 9.- Altz	8.- Ez da gitxiagorako/Ez sinisteko modukoa/Handiagorik (pasatzeko) ere/ 9.- Ha hor non eskapatu zaizkidan...
BASAJAUNA 10.- Ez da izango!	10.- Ustekabea eta ez sinestea	10.- Altz, Zam	10.- itzelangorik!/entzuteko ere/benetan zaude?/holangorik/bai zera/Kendu hadi hortik!/hori da marka!

2 (Tartalo Jentilzubin harrapatuta)			
AUKRATUTAKOA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
TARTALO 1.- Ez da izango ba! 2.- Zapparoen atzetik nihoala, 3.- ez naiz ba tripontzi handi hau Jentilzubiko zulotik pasatu ezinik geratu!	1.- Baieztapena berrindartzea 2.- Jazarpena 3.- Etsipena, ezintasuna	1.- Altz, Zam 2.- Laby 3.- Garat, Mok	1.- Egi-egia da/bai horixe/Hobe izango ez balitz/Bai ba/bene-benetan diotsut 2.- Orpoak jaten/orpoak jan beharrean/("orpo" hitza daramaten UFen arikeak planteatu: orpoz-orpo, orpotik jarraitu, inoren orpotik egin-barre egin-...) 3.- -eta (...zulotik pasatu ezinik geratu naiz-eta –no me he quedado pues atrapado!)/aho bete hort utzi naute

3 (Tartalo argaltzeko asmoen berri ematen)			
AUKRATUTAKOA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
BASAJAUNA 1.- Halakorik! (barreari eutsi ezinik)	1.- Harridura (ironia puntua), ustekabea	1.- Altz	1.- Hori da mark(e)a!/Hau duk hau izatekoa/Sekula holakorik/Hau duk hau izatekoa/bai zera!
TARTALO 2.- Niri barre gutxi, gero!	2.- Mehatxua	2.- Altz, Aizu, Mok	2.- Hitzok irentsi baietz! [Baietz/ezetz erako ariketak proposatu, erderazko "a que no/a que sí..."]
BASAJAUNA 3.- Baina benetan zagoz? 4.- Ondo gobernatuta zaude zu!	3.- Sinestezintasuna 4.- Lodituren inguruko UF bilatzea	3.- Zam 4.- Labay, Garat Mok	3.- Benetan egon (hablar en serio)/benetan diozu/egitan diozu? [besterik da: Benetara egon (estar convencido)] 4.- Zeharo Potolotuta zaude!/eza ikusi gabe ez zaude zu /ondo gobernatuta/azal bete-betean/zahartze eta gizentzea txarra/harra bezain gizen/
TARTALO 5.- Buruari itxita nago-ta, 6.- zer gura ta ha jaten ohituta. 7.- Kupela baino lodiago nago. 8.- Ba jakin ezazu 9.- dieta egitekotan nagoela.	5.- Alperkeria, patxada bizimoduu ona 6.- Ugaritasuna, gehiegi jan 7.- Loditasuna 8.- Informazioa sarrarazteko formula bila, 9.- Zerbaiten asmoa dudala adieraztea	5.- Zam, Intz 6.- Intz 7.- Ikus 3.4 8.- Altz 9.- Mok	5.- Aferkeriak jota/alfer gorri bizi/eulikeriatan egon/pipa jotan bizi/ 6.- janak jan gin/edanak edan egin/inon direnak jaten ohiturik/geza eta geziak tragatu/ hezeak eta iharrak jan/tripotxak bete 7.- Ikus 3.4 8.- Jakizu... 9.- ustea izan/gogoa izan/horretarako ustea dut
BASAJAUNA 10.- Aitaren eta semearen. Hamaika entzuteko jaio ginen!	10.- Harridura	10.- Zam, Mok,	10.- Aitaren eta semearen (hemen belaunaldien arteko tartea ikusten da; gazteek ez dugu hori bezalako formula erlijiosorik erabiltzen). 11.- Hamaika entzuteko jaio ginen! (horien moduko UFak erabiltzen dira esaera erlijiosoen ordez)

4 (Tartalo Basajaun harrapatu nahian, adarra jo diolako)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
TARTALO 1.- Ze erremedio.	1.- Derrigortasuna	1.- Gart, Cerv, Laby	1.- (A la fuerza ahorcan) Beharra eragile handi/derrigorrean egin behar/derrigorrak jota
BASAJAUNA 2.- Hori ez dozu begien..., parkatu, begiaren itxi-ireki baten lortuko, 3.- ez horixe!	2.- Begi hitzarekin jokoa eginez beste UFren bat sartzea. Arintasuna 3.- Ukatzea, ezetza	2- Laby, Zam, Cerv, Intz 3.- Intz	2.- (en un santiamén) amen baten/amen batean./aitearen egin orduko/aitaren egin orduko. Ikus 3.10 ahotik sudurrera/bat-batean, bapatean/begi gora behera batean/berehala/berehalakoan/izpi batean/lipar batean/orpoz ipurdi/ziztu batean/ziztu bizian 3.- bai zera/bai zeretik//baita zera (ere)/ederki eman ere/ez balinba/ez baldinbait/ez baldinbere/ez gehiagoren gehiago/ez gutxiagoaz ere/ez horixe/ez hurrik eman ere/ezelanbere ez/ezta (...) ere/hain gutxi/hain gutxiago/hurretan ere (ez)/inolaz ere (ez)/inondik ere (ez)/inondik inora (ez)/menderen mendetan (ez)/santa sekula (ez)/
TARTALO 4.- Begia bakean uzteko, demontreee! Trageuko al haiz!	4.- Gauza txarrak opatu	4.- Mok	4.- lurrak irentsiko al du!/ Lupuak jango al du! /Hori da mark(e)a!/

5 (Tartaloren entrenamendu saioen hasiera. Aizkolari)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
NARRATZAILEA 1.- Eta hor doa tartalo jo ta ke, harria jasotzen	1.- Ahalegina, ekina	1.- Intz	1.- begiak bota beharrean/buru belarri/herio suhar/herio suharrean/hortzez eta haginez/inola ahalean/izerdi patsetan/jo eta hautsian/jo eta ke/jo eta su/muturrak apurtuz/su eta fu/su eta gar/su eta garre(t)an/su eta jo/ur eta su/zor edo lor/bazterrak erabili/birikak bota/errestoa utzi/indar egin/indarrak egin/(ezertarako) modua(k) egin/txanpa jo/
TARTALO 2.- Baita ta ta, beso batekin ere! (tartalo bere buruari animoak ematen)	2.- Animoa, erronka, (“sobrau” itxura)	2.- Zam, Intz	2.- Ez dut egingo ba!/bai horixe/hortzez eta haginez/bihotz guztiaz
NARRATZAILEA 3.- Ekin ahalean dabil 4.- Ea berriro!	3.- Ahalegina, ekina 4.- Animoa,	3.- Intz 4.- Zam, Intz, Laby, Altz	3.- Ikus 5.1 4.- Hori duk eta/eutsi goiari/eman/hori hori!

NARRATZAILEA 5.- zati baterako dauka tripontzia kendu nahi badu...	5.- Lan asko falta dela adieraztea	5.- Mok, Cerv, Garat	5.- Cerv.en “largo” sarreratik sartuta (A camino largo, paso corto) Azkar heldu nahi baduk, astiro joan (Garate2004 n° 2.117)/
---	------------------------------------	----------------------	--

6 (Tartalo harriak jasotzen Basajaun sukaldari)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
BASAJAUNA 1.- Ezetz aguatatu	1.- Desafioa, erronka	1.- Laby	1.- ezetz eutsi/aguantatu ezetz/Ez duzu aguantatuko
TARTALO 2.- Hoba ez! Nik daukadan indarragaz ta...	2.- Asmoa berretsi, indartu	2.- Zam, Intz	2.- Ikus 5.2
TARTALO 3.- Ez ba ze! Enozu tenteuko!!	3.- Ezetza berretsi, indartu	3.- Zam,	3.- Ez ba ze! Bai ba ze (que sí, pues // que no pues)/ Ezetz ba

7 (Tartalo janariari begira, adurra dariola)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
NARRATZAILEA.- Begia baino gurago duzu/du	1.- Gutizia	1.- Intz	1.- begia hestea baino luzeago ukan/begiak zuriturik egon/begiz jan/(ezergatik) belarri biak moztu/(ezertarako) gogoia egin/(ezertarako) kasketa eduki/kolkotik nahi

8 (Tartalo Basajaunen atzetik aizkora jaurtitzen)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
TARTALO 1.- Txo-txo!	1.- Mehatxua, haserrea	1.- Altz, Aizu	1.- Ikus 1.3
BASAJAUNA 2.- (barreari eutsi ezinik beriro)	2.- Barre hitzaren inguruko UF aurkitu. Ariketa moduan, barre	2.- Intz, Garat, Cerv	2.- Intz. barrez lehertu/barrez estanda egin/barrez purrestadaketa/barrez esteak bota/barrez ito/

	kontzeptua erabiliz, paremiak hizkuntza ezberdinetan aurkitzeko aukera eman		Paremia batzuk: Garat.: Ez txantxetan, ez zinez, lagunaren lepotik barrerik ez/ Barre askok, negar danak. (aukera erderazko adibideak emateko: Nacimos llorando// We weeping come into the world, and weeping hence we go) Cerv: De la risa al duelo, un pelo//Olgetan hasi benetan irten//Joy and sorrow are next door neighbours.
TARTALO 3.- Hoa artaburuak urkultzera!!!	3.- Solasa edo harremanak haserrez hautsi	3.- Intz, Zam, Aizu, Mok	3.- pikutara joan/ txoritara joan./ antzarak ferratzera joan./ porruak landatzera joan./ utikan! (hoa hortikan!)/ alde hemendik! (a freir espárragos)/ Emendik! aize artzera!(Alde emendik!)
4.- Jo ta txikitu egingo zaitut! .- Buruan oso osoan aparatuko zaitut, 5.- papao halako hori!	4.- Jipoitu 5.- Irainak, burla	4.- Zam, Intz 5.- Zam, Aizu	4.- (inori) arkakosoak akabatu/(inork) atzaparretan zenbat hatz dauzkan sudurrarekin neurtu/asto zuriarenak eta beltzarenak hartu/(inori) aurpegi narrua kendu/(inori) bartzak hautsi / kendu/belarriak berotu/bizarrak atara/bizkarra berotu/bizkarrean hotzik ez ukan / egurra eman/emon-emon egin/epelak hartu/epelak eta bi hartu/euliak kendu/hautsak kendu/ larrua konpondu/(inori) narrua berotu/narrukoak eman/pasada hartu / eman... 5.- leloa ez bazara zu!/azolio./ babalasto./ eltzagor./ kakalardo./ tontolapiko./ tonto usainak kendu/kaiku/ergel...
NARRATZAILEA 6.- Hauek biak beti daude txakur eta katu	6.- Borroka, liskarra	6.- Laby, Intz	6.- txakur-katuak lez ibili/txakur-katu egon/ewsku dantza/makil dantza/estudianteen kontuak/muturka/auzi(a) eman/auzia ipini/(inorekin) ezpatara atera/hautsak batu/lepotik heldu/liskar altxatu/paparretik heldu/ukalditara pasa/

9 (Tartalo txingeruten eta laminak inguruan)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
LAMIA 1 1.- Bete betean sinistuta dago modelo izan daitekeela.	1.- Hitz bera errepikatuz sortu daitezkeen lokuzioekin jolastea	1.- Zam	1.- egunean egunean (bietan errepikatuz gero:egunero) . - buru buruan jo du (bigarreanean bakarrik: buru erdian) . - arima arimatik/an/bihotz bihotzetik (arima/bihotz barrutik, sakonetik) . - Goi, behe, azpian (oso goi, behe, azpian) . - alboz albo/parez pare/buruz buru . - loaren loak/beharraren beharrak (de tanto dormir/trabajar...) . - diruaren diruaz/gosearen gosez/zaharraren zaharraz . - Eder ederra/polit polita (beti "oso" ez erabiltzeko)
LAMIA 2	2.- Animoak ematea, indarraren	2.- Intz	2.- jo eta (bota, lehertu, moztu, puskatu...)

2.- jo ta su	indarrez lortu zerbait, eginhalean		jo eta ke/ su eta jo/
LAMIA 1 3.- hori hori (animoak ematen)	3.- animoak ematea,	3.- Ikus 5.4	3.- Ikus 5.4
LAMIA 2 4.- Hobeto beharrean esaten dizut, Tartalo. Geuk esango dizugu argal egoteko zer egin behar duzun.	4.- Intentzio ona	4.- Mok	4.- on-gurean/ondo beharrez/on-bearrez ésan /ondo ustean

10 (Tartalo lirain, hipster bihurturik)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
NARRATZAILEA 1.- Hor dabil Tartalo, 2.- inoren begien egarri. Modelo izan nahi al du?	1.- Sarrera modukoa 2.- Atentzioa deitu nahia	1.- 2.- Intz, Zam, Laby	1.- Ha hor Tartalo/ Bergira 2.- burua erakutsi/burua atera/burua agertu/gangarra erakutsi/kopeta erakutsi/nabarmen ibili/inor barriketan ipinteko bidea emon/inor berriketan ipintzeko bidea eman/harroputzitu/harroputzu/oilartu
LAMIA 3.- Ta? (lamiek Tartalori ispilua erakutsi eta iritzia galdezka)	3.- Iritzia eskatzea.	3.- Zam	3.- Zer deritzozu?/ .- “ta?” niri zer axola zait!/bost axola! esateko ere erabiltzen da.
TARTALO 4.- Grrrrrrrrr!!!! (Tartalo ispiluan ikusten duenaz konforme ez)	4.- Diskonformitatea adierazi.	4.- Ikus 8.3, Aizu	4.- Ikus 8.3/ CEÑO, fruncir el: begia ilun ipini./ begitarte zapuztu./ begitarte iluna egin, paratu./ bekaina, bekokia, kopeta ilundu./ kopeta, bekainak belztu./ bekozko(beltza) ipini./ beltzuri egin./ beltzurik egon./ kopeta beltza jarri./ muturra, kopeta jarri
LAMIA 1.- zer da (gero) berau!	5.- Jarrera gaitzetsi, salatu (¡Menudo es este!)	5.- Zam, Laby	5.- (ha)zelako nolako harroa, halako + harrorik.

11 (Tartalo eta Ziripot)

AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
ZIRIPOT 1.- Nora zoaz hain elegante astegun buru-zurian!	1.- Buru-zuria aitzakia moduan haruta, “zuri”rekin jolastu	1.- Aizu Laby Gart,	1.- DIARIO, día de: astegun, lanegun (buruzuri)./ astegun gorri(an). begi zuriak egin/burua zuritu/zuria (aperra) izan/ Agure buru zuri, ollanda zalea Azala zuria ta barrena beltza - Zuri guziak ez dira irinak/Las apariencias engaňan/A fair face may hide a foul heart - Truth has a good face, but bad clothes
TARTALO 2.- Burua zaintzen nago. Zuk ere lodi ikusten nauzu?	2.- “Buru”-rekin jolastu	2.- Labay	2.- buru egin dio (aurka egin dio)/kokolo buru egiten du (itxurak egin)/buru eman dio (bukatu)/burutara eman dio (pentsatu du)/buru belarri/buru agertu (Ikus 10.2)/burua berotu, bete/buru bi belarrien artean ezarri ipini jarri (norbaiti zerbait zuzendu)/buru belarri/buru galdu/buru jantzi (ikasi)/burua joan
ZIRIPOT 3.- Niri zer dit ba! 4.- Ez al dakizu gure osasuna ez dagoela lodi-argalean?	3.- Axolarik eza 4.- “Depende de”ren parekoak aurkitzea	3.- Intz 4.- Garat	3.- Ez dit ardura/bost axola niri/hor konpon/bost ardura/ 4.- Osasuna dago lodi-argalean/gazte-zaharrean/txiki-handian (no depende de)
TARTALO 5.- Zu zeu behintzat ez zaude alperrik galduta, gero!	5.- Loditasuna ironiaz	5.- Ikus 3.4 Laby	5.- hondatu/kakaztu/galdu/kaskatu/galdu/muskildu
ZIRIPOT 6.- Jakin daiteke, zertan zabilzan zu bazterrak engainatzen? 7.- Nondik nora bururatu zaizu argalduta hobeto egongo zarela...	6.- Iskanbila, nahastea, istilua 7.- Nola galderari “gatz” gehiago ematea (nondik nora?)	6.- Intz 7.- Intz	6.- lokatza nahaste/zikilisaltea/zikulusaltea/bazter nahasle/bazter nahastaile/armonia jarri/armoniak eduki/bazterrak harrotu/(elkarren) eskuetara sartu/kalapita bilatu/okasioa eman/okasioa(k) jarri/olatu nahasian ibili/saltea jarri/sasia(k) sutu/sesioa jarri/sesioan ibili/trumoi nahasia jarri// 7.- nondik eta nola/nondik nolatan/nolatan/
TARTALO 8.- Zoaz pikutara! Hori da niri animoak emateko modu xelebrea!	8.- Ikus 8.3	8.- Ikus 8.3	8.- Ikus 8.3

12 (Marixe Anbotoko eta Tartalo)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
MARI 1.- Ikusten dut entrenamenduan aurrera zaudela!	1.- Aurrera/atzera egon joko.	1.-Laby, Garat	1.- Aurreratuta, atzeratuta egon (esaterako, oinez arin hasita) Aurrera dago (haurdunaldian aurrera) Aurrera aditze(n) (begira, erne) ezтана, atzera dago/Si no adelantas, retrocederás/He that looks not before, finds himself behind.
TARTALO 2.- Bai horixe. Eta egunean lau ardi barik, bi baino ez ditut jaten.	2.- Ikus 2.1	2.- Ikus 2.1	2.- Ikus 2.1
MARI 3.- Baina-baina... 4.- argaltzeko begano bihurtu behar zara-eta	3.- Era horretako sarrera espresiboak erabiltzea 4.- Erderazko “es que...”ren ordainak ematea	3.- Laby, Aizu 4.- Aizu	3.- (Ai) ene bada!/(Ai) ene badatxo! BUENOS, estamos: jai dugu 4.- CASO es que, el: kontua (zera) da: begano bihurtu behar zarela/
TARTALO 5.- Baita zera ere! Hori ere egin beharko. Holangorik!	5.- “No fastidies” erakoen ordezkioak bilatzea	5.- Aizu, Zam	5.-. bai, zera./ bai, eta zera ere./ ez zitekek/n izan./ sekula halakorik./ txantxetan, ala?
MARI 6.- Lanak izango dituzu ariketarekin bakarrik argaltzeko.	6.- Zailtasuna	6.- Laby, Intz	6.- nekez lortuko duzu.../kostako zaizu/ondo kostata lortuko duzu/ ezer) (inoren) aizkoraz gaintetik egon/(ezer) (inori) aldats egin/(inon) (ezertan) lana(k) egon/(ezertan) lanak izan/(ezer)k lanak eman / ukan
TARTALO (bere artean) 7.- Ez-entzun egingo diot 8.- Eta zuzen badago? 9.- Okela jateari utzi behar. Zer jazoko ere! Badaezpada. 10.- Halako markarik!!!	(bere artean) 7.- Itxurak, plantak egitea 8.- Zuzen egotea, arrazoia izatea 9.- Badaezpada 10.- Ikus 1.10	Intz, Zam, Laby 7.- Intz, Zam, Laby 8.- Intz, Laby, Garat 9.- Aizu, Garat 10.- Ikus 1.10	(isilka, isilpean, ahopean) 7.- entzun gor/gorrrarenak egin (honek bidea ematen du ZERBAITENenak egin modukoekin jolasteko: tontoarenak egin, tonto plantak egin...) 8.- arrazoia izan/ Arrazoiari berea eman behar zaio=Give the devil his due/ 9.- MOSCAS, por si las: zer gerta ere, adib.: “Hik ere hobe duk hemen geratu, zer gerta ere” (hori ez da ‘pase lo que pase’=gerta ahala gerta)./ badaezpada (ere)./ «Hor konpon»ek etxea hondatu, «badaezpada»k etxea egin= Hombre prevenido vale por dos 10.- Ikus 1.10

13 (Ardiak pozik, Tartalok jateko beldur gabe)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
ARDIAK 1.- Hau dun lasaitua!!!	1.- Lasaitasuna	1.- Laby, Intz	1.- arnasa lasai hartu dezakegu/lasaitasun ederrean egon/ dormir a pierna suelta= Anka-zabalik lo egingo du/siku lo egon/seko lo egon, gogor lo egon, oso eta santu lo egin, luze eta zabal lo egin, lozorroan egon, ardura barik lo egin/ardura(rik) gabe lo egin, ederto lo egin/ederki lo egin, gustura lo egin, lo (bete-)betean egon, zabal eta zabar lo egin.

14 (Tartalo ingudean, umeak adar joka)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
UMEAK 1.- Alper da! 2.- Ketotuta zagoz, Tartalo!!!!	1.- Alferreko ahalegina 2.- Ahuldadea, burla	1.- Zamp, Intza 2.- Laby, Intz	1.- alferrekoa da/Alferrik da/ahateari igeri irakastea/ arrainari igerika irakastea/harrian iltzea sartzea 2.- makal zabilta/
NARRATZAILEA 3.- belarriak bero bero eginda ditu tartalok. 4.- Umeak kukuka dabilta,	3.- "Calentar la cabeza" 4.- Adar jotzen ezkutuka	3.- Mok 4.- Aizu	3.- Burua arrotuta/kopeteraino egon/kokoteraino/aspertuta 4.- kiriketana./ ezkutaketana./ kukuka./ zapoketana ibili
TARTALO 5.- ingudea ozta ozta jaso dezaket. 6.- Hau da txakalaldia!!!	5.- Ikus 9.1. 6.- Ikus 14.2, ondoeza	5.- Ikus 9.1. 6.- Ikus 14.2	5.- Ikus 9.1. 6.- Ikus 14.2

15 (Tartalo ahulduta umeen atzetik harrapau ezinik)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
TARTALO 1.- Umeak beti bazterrak nahasten. 2.- Astinaldia eman behar diet	1.- Ikus 11.6 2.- Ikus 8.4	1.- Ikus 11.6 2.- Ikus 8.4	1.- Ikus 11.6 2.- Ikus 8.4
UMEAK 3.- Baita zera ere.	3.- Ikus 4.3 4.- Ikus 3.2	3.- Ikus 4.3 4.- Ikus 3.2	3.- Ikus 4.3 4.- Ikus 3.2

4.- Ezetz harrapatu!!			
NARRATZAILEA 5.- Hor doa Tartalo gaixoa, 6.- itsu itsuan.	5.- Ikus 10.1 6.- Itsumustuan	5.- Ikus 10.1 6.- Laby	5.- Ikus 10.1 6.- oilo-oiloka/itsukaitu/astokaitu-kapeluka/zapoka/itsumustuka
TARTALO 7.- Arnasa bete ezinik geratu naiz. 8.- Odolkiak ordainetan eman dizkirate! 9.- Ezin diet merezia eman.	7.- Ahalegina, Ikus 5.1 8.- Paremia jokoia, merezitakoa jaso 9.- Merezitakoa eman	7.- Ikus 5.1, Laby 8.- Mok, Laby 9.-	7.- Arnasa baten/arnasa estuka/arnasoska/hatsanka 8.- (donde las dan las toma) berea(k) hartu/bereak ikusi/ordaina hartu/ordea hartu//bere merezia hartu/bere eginen saria hartu//dagokion saria hartu//behar besteko gaztigua hartu 9.- berea(k) hartu/bereak ikusi/ordaina hartu/ordea hartu/ bere merezia hartu/bere eginen saria hartu/ dagokion saria hartu/ behar besteko gaztigua hartu)/berea(k) eman)/ordaina eman/ ordea eman/bere merezia eman/ bere eginen saria eman/ dagokion saria eman/behar besteko gaztigua eman//

16 (Tartalo baraualdiari utzi eta izter handia jaten)			
AUKRATUTAKOIA	ZEREN BILA	NON BILATU	AUKERAK
TARTALO 1.- Berdinean, nik nahiago ister eder bat! 2.- Ia, ardo kupel bat! Akabo nire dieta! 3.- Potoloa naiz eta eta kitto!!! 4.- Sakrifizio gehiagorik ez, Zin dagit....!!	1.- “Puestos a elegir”-en tipoko esaerak 2.- Ia (ea!) esaldiaren sarreran erabiltzea (a ver!) 3.- Iritzia berrestea 4.- Formularen bat erabiltzea	1.- Laby, Zam, Mok, Intz 2.- Laby, Mok 3.- Altz, Intz 4.- Altz	1.- Hanbatik hanbatean, nik nahiago.../aukeran, nik nahiago... 2.- Labayru hiztegian “ea” erabiltzeko eaten du. “Ia” ahozkoan erabiltzen dugu. Beste gauza bat da ia-ia (“casi”) 3.- burua lehengo lepotik eduki (Azalpena: iritziz edo ohituraz ez aldatu)/bere horretan jarraitzea/lehengo moduan/ 4.- Hitza ematen dut/zinez/benetan
NARRATZAILEA 5.- On egin dagizula janak, eta txarrik ez edanak	5.- Jan-edanarekin lotutako Formulak	5.- Altz	5.- Apetitu on!/ Zure osagarriari!/Zure graziari/Zeure osasunagaz/zure osasunerako (erantzuna)ta zure onerako/ Zure osasunera/jan, jan, jan barik joan barik!

2. Komikiaren irudiak


































IV. 3. Komikia lantzeko jarduera posible batzuk

Azkenik, komikiaren inguruan egin daitezkeen ariketa edo jarduera batzuen planteamendua egingo da.

.- Lehenengo eta behin, gogotara ekarri behar da istorioaren testua osatzeko prozesua bera ariketa moduan planteatu dela. Testugintzaren ardatza izan da beharrian komunikatibo batzuei era adierazkorrean erantzutea, hau da, egoera edo sentimendu jakin baten aurrean (etsipena, haserrea, tristezia, ustekabea...) unitate fraseologiko adierazkorrak aurkitzea iturrietan. Behar bada, horra arteko lana materialgintzan dihardutenei dagokie. Horren barnean sartzen da erreperitorio fraseologikoak osatzea eta adinen araberako sailkapenak egitea eta sortutako materialak ebaluatzea.

Baina ariketa moduan sortu dugun istorio edo komikira itzulita, era ezberdinetan aurkeztu ahal zaizkie irudiak umeei. Ariketa bat izan daiteke umeen aurrean irudi hutsak banan-banan aurkeztea, testurik gabe; irudien aurrean, umeei deskribatu dezatela ikusten dutena eta azaldu dezatela zer nolako sentimenduak sortarazten zaizkien pertsonaiei. Hurrengo pausoa izango da sentimendu horientzako espresabideak aurkitzea. Hori guztia elkarrizketa eran antolatu daiteke.

.- Beste ariketa bat izan daiteke irudiak multzoka (hiru edo lau irudi bakoitzean) ematea, denak batera eman beharrean, kontuan izanik gure kasuan hamasei irudi direla istorioa osatzen dutenak, eta hori larregitxo izan daitekeela umeei, istorioaren gidoia izan gabe, kontaketa koherentea antolatu ahal izan dezaten. Multzo bakoitzaren irudien hurrenkera asmatzen dutenean multzoen arteko hurrenkera asmatu beharko dute. Horrela jokatuta, gidoi baten antolaketa koherentea lortzearen gaineko lana egingo da, eta baliteke (eta seguruen gertatuko da) antolaketa eta kontakizun ezberdinak sortzea, aukerak ere aberastuz.

.- Beste bat: irudiei hizketa burbuilak jartzea eta irudien azpian elkarrizketak jartzea. Umeei asmatu egin beharko dute elkarrizketa bakoitzari zein hizketa burbuila dagokion.

.- Aurrekoaren beste aldaki bat izan daiteke aukera zuzenak eta okerrak nahastean ematea; hau da, irudi baten hizketa burbuila guztiak beteta egongo dira bat izan ezik, bete gabe dagoen hori osatzeko zenbait aukera (unitate fraseologiko) emango dira eta umeei zuzen dagoena asmatu beharko dute.

.- Dena delako unitate fraseologikoaren sinonimoak (edo antzerako esanahia dutenak) aurkitzea, baita antonimoak ere.